

LANDATZEN ETA ZAINTZEN

Jarduera honekin, zera lortu nahi dugu

Landareak zaintzeak duen garrantziaz jabetzea, landareak zaintzea natura errespetatzeko modu bat baita.

Beharko dugun materiala

Hazi batzuk, loreontziak, lurra eta ura.

Iraupena

Jarduera hau hainbat saiotan zehar egiteko dago pentsatuta.

1. fasea:

Esan neska-mutilei hazi batzuk landatuko ditugula eta horietatik sortzen diren landareak denon artean zainduko ditugula.

Galdera hauek eginez, eman beharreko pausoak zehazten joan:

- Zer behar dugu landare bat izateko?
- Non jartzen da hazia?
- Zer «elikagai» behar ditu haziak hazteko?

2. fasea

Hazia landatu, eta egiten zoazen guztia pausoz pauso azaldu:

«Loreontzian lur pixka bat jarriko dut, ur pixka bat botako diot, eta lur hezea eskuekin nahastuko dut. Gero, zulo txiki bat egingo dut lurrian, barruan hazia sartuko dut, eta lurrian estaliko dut.»

Talde txikitan jarrita, ikasleek landa ditzatela gainerako haziak. Loreontziak leihotatik gertu jarri, eguzkiaren argia jaso dezaten, eta astero ikasle bat izendatu ureztatze arduradun.

Bi astean behin, bilera egin, esateko landareak nola dauden, eta galdetu zer den gehien kostatzen ari zaiena eta nola moldatzen ari diren.

Benetako superheroiek errespetatu egiten dute natura, eta zaindu egiten dituzte landareak eta gizakiak.